

UBM, 108-109

[EGUZKI GALDATAN]

Eguzki galdatan,
uztaileko eta Madrilekotan,
gaban lodi zapo koloreko handiz,
musuan handitu gorriak eta odola,
alderoka ta marmarrez,
Francisco Silvela kalez,
Plaza de Roma alderuntz gizona.
Bikoteak, banakoak, haurrak,
adineko gizon eta andre,
espalo berez.
Eta gaban zatarrez

jantzitako gizona
(nahi genuke begititik galdu)
atzean utzita ere begitan,
handiagoa gabana,
handiagoa alderoka,
gero ta irudi handiagoa eginez oroitzan,
musuko handitu haziagoz dator Erromako Plazaruntz,
gainetiko guztiok baino askoz handiago bailitza edo
zezen handi ta gaizki zauritu bat oilo artez.

Evita Perón,

zeure izeneko parke hortan al zaude?

Zutaz oroitzen naiz,

gu baino bihotz gehiagoko izandua-edo bait zara
ta gu baino gauzagoa-edo behartsuen alde iharduteko:
zuri dagizut arren.

Erromako Plazarantz datorren moskor gizagaiso handi baten ondoz
igaro gara

zer-esangoaren mila morroitxo.

Ikusita ere,

ez dugu nahi izan ikusi,

konprometagarri zitekeelako;

begiratuta ere,

ez gara gauza izan hari begiratzeko,

ez baitugu ausardiarik;

lagundu nahi ta ere,

ez diogu lagundu,

ez baikara oraindik libre izatera heldu.

Baina zuk

emango al diozu atsedean alditxo bat non har,

non izerdia ta odola txuka,

zeu izatearen nagusitzara-edo iritsi zinen horrek.

Baina zuk,

“Pilda-jarioen amatxo” ere baderitzazun horrek,

zuk bai emango diozu parke hortako arbola baten itzala

eguzkiak ernegarazten duen gizonari,

ta banku bat

gaban lodiak eta aurpegiko handituek erremintzen dutenari,
eseri nahiz etzan ahal dadin;
izen onaren eta itxuren legea baino goragora heldua bide baitzara
gizonaren aldeko egintzetan.